

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZUIAKO UDALA

Kobratzea landa eta hiri ondasun higiezin gaineko eta ezaugarri berezietako ondasun higiezin gaineko 2018ko zerga

Nik, Unai Gutierrez Urkizak, Zuiako Udaleko (Arabako Lurralde Historikoa) alkate lehendakariak,

Jakinarazten dut: 2018ko ekainaren 1a eta uztailaren 31 bitarteko egun baliodunetan (biak barne), larunbatetan izan ezik, ordaintzeko moduan egongo direla, borondatezko epean, landa eta hiri ondasun higiezin gaineko eta ezaugarri berezietako ondasun higiezin gaineko 2018ko zergaren ordainagiriak.

Zerga horren eraginpekoek, ordainketa inongo banketxetan helbideratuta ez badute, Kutxa-banken edozein bulegotan ordaindu ahal izango dituzte zerga zorrak, aurkeztuz etxean jasoko duten ordainagiri abisua; abisua jaso ezean, Zuiako udal idazkaritzan eskatu beharko da.

Zergapekoei ohartarazten zaie komeni dela zerga zorrak banketxe edo kutxetan helbideratuta izatea.

Epe hori igarotakoan, premiamenduko betearazte prozedurari emango zaio hasiera ordaindu gabeko kuotak kobratzeko, hala xedatzen baitute zergen foru arau orokorrak eta dirubilketa arautegi orokorrak, eta dagokion errekaruarekin (ehuneko 10 edo ehuneko 20) kobratuko dira.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Murgia, 2018ko ekainaren 4a

Alkate lehendakaria
UNAI GUTIERREZ URKIZA